


# Irakurle Digitala

## Firefox

- **Irakurle Digitalaren funtzionamenduaren oinarriak:**

Lehenengoz eta behin gogoan izan Irakurle Digitala erabiltzeko Interneterako sarbidea ezinbestekoa dela.

Irakurle Digitala martxan jartzen dugunean nabegatzailean bistaratzen ari garen web orria edo pdf dokumentua arakutzen hasten da, esaldiz esaldi. Irakurle Digitalak identifikatzen duen 1. esaldia urdinez nabarmenduko du eta Interneten bidez testua ahotsa bihurtuko duen sistemara bidaltzen du. Hortik gutxira ahots-sintesi egin duen sistemak bueltatu egiten digu entzungo dugun soinua. Irakurle Digitalak, automatikoki, hurrengo esaldia identifikatuko du eta prozesua errepikatuko da.



- **Erabilera:**



Irakurle Digitalaren tresna barran 4 osagai daude. Play/Pause botoia, Hizkuntza aukeratzeko konboa, Abiadura aukeratzeko konboa eta produktuaren webgunerako esteka.

1. Nabegatzailean irekiko dugu irakurri nahi dugun web orria edo pdf-a.
2. Zein hizkuntzatan dagoen eta zein abiaduratan irakurriko den aukeratu ditugu.
3. Sistema martxan jartzeko **Play** sakatuko dugu testua arakutzen hasteko. Esaldiz esaldi hasiko da testua ahotsa bihurtzen. Beste zati diferente bat irakurtzea nahi badugu **Pause** sakatuko dugu prozesua automatikoa eteteko.
4. Orain prest gaude aukeratzeko nondik hasi nahi dugun irakurketa. Sagua erabiliz markatuko dugu non hasi nahi dugun.
5. **Play** sakatuz gero hasiko da irakurketa hautatutako lekutik aurrera.
6. **Play**, **Pause** eta saga erabiliz nahi dugun moduan jarraituko dugu testua irakurtzen.
7. Beste web orrialde batera bagoaz edo beste pdf bat irakurri nahi badugu prozesua hasi behar da berriro.

# Irakurle Digitala


## LibreOffice

- Irakurle Digitalaren funtzionamenduaren oinarriak:

Lehenengoz eta behin gogoan izan Irakurle Digitala erabiltzeko Interneterako sarbidea ezinbestekoa dela.

Irakurle Digitala martxan jartzen dugunean bistaratzen ari garen testu dokumentua arakutzen hasten da, esaldiz esaldi. Irakurle Digitalak identifikatu duen esaldia urdinez nabarmenduko du eta Interneten bidez testua ahotsa bihurtuko duen sistemara bidaltzen du. Hortik gutxira ahots-sintesia egin duen sistemak bueltatu egiten digu entzungo dugun soinua.

Irakurle Digitalak, automatikoki, hurrengo esaldia identifikatuko du eta prozesua errepikatuko da.



- Erabilera:



Irakurle Digitalaren tresna barran 6 osagai daude. Play botoia, Pause botoia, Stop botoia, Hizkuntza aukeratzeko konboa, Abiadura aukeratzeko konboa eta produktuaren webgunerako esteka.

1. Testu prozesadorean irekiko dugu irakurri nahi dugun dokumentua.
2. Zein hizkuntzatan dagoen eta zein abiaduratan irakurriko den aukeratu ditugu.
3. **Play** sakatuko dugu testua arakutzen hasteko. Esaldiz esaldi hasiko da testua ahotsa bihurtzen. Beste zati diferente bat irakurtzea nahi badugu **Stop** sakatuko dugu prozesua automatikoa eteteko.
4. Orain prest gaude aukeratzeko nondik hasi nahi dugun irakurketa. Sagua erabiliz markatuko dugu oraingoan non hasi nahi dugun irakurketa.
5. **Play** sakatuz gero hasiko da irakurketa hautatutako lekutik aurrera.
6. **Play**, **Stop** eta sagua erabiliz nahi dugun moduan jarraituko dugu testua irakurtzen.
7. **Pause** botoia bakarrik erabiliko da eten bat egiteko, ez lekuz aldatzeko.